

Indarkeria Matxistari #GukEzetz kanpaina aurkezpena

- Hainbat aurpegi ezagun, gazte zein elkarte edo eragilek aldarrikatu dute Indarkeria Matxistarik gabeko gizarte bat
- RECacciona Berdintasun ezari... #GukEzetz bideo-lehiaketako sari-banaketa ere egin zen: *Gu feministak, zu zergatik ez?* Izan da garaile

Bilbon, 2017ko ekainaren 30an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Indarkeria Matxistari #GukEzetz kanpaina aurkeztu zuen atzo arratsaldean. Maialen Olabek, EGK-ko presidentak azaldu zuenez “Berdintasun lan-arlotik gidatutako proiektu honen helburua gazteon jarrera argi uztea da”, baita mezua eta “arazoiari gizarte bezala erantzun behar diogula” gizarteratzea. “Emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako gizartea dugu helburu eta, lortu arte, lanean jarraituko dugu”, azpimarratu zuen Olabek.

Azkuna Zentroan egindako ekitaldian, EGK-ko presidentak Berdintasun lan-arloaren bilakaera azaldu zuen laburki. “2015ean Berdintasun diagnosiak egoera eta teknikariaren beharra mahai gainean jarri zuen. Segituan izan genituen lehen emaitzak: Berdintasun plana, Gune Anitza zigilua eta Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloak”. Azken honen harira, Norma Ageitosek, EGK-ko Berdintasun teknikariak “60 aldiz baino gehiagotan aktibatu behar” izan dutela nabarmendu du. “Gehiegi da, eta erantzuna emateko behar eta nahi horretatik dator Indarkeria Matxistari #GukEzetz kanpaina”, argitu zuen Olabek.

#GukEzetz kanpainara batu dira: Zuriñe Hidalgo, Julen eta Antton Telleria, Izaro, Iker Lauroba, Huntza taldea, Olatz Salvador; Ander Añibarro, Nagua Alba, Oihana Etxebarrieta, Maialen Gurrutxaga eta Gorka Álvarez, Jon Insausti, Mireia Zarate, Azahara Dominguez; Bizkaiako Gaztetxoan Koordinakundea, Kale Dor Kayiko, EGI, Lilith Mujeres Jóvenes de Euskadi, Ekintza Katoliko Orokorra, Gehitu, Donostiako Piratak, Klitto Atari Digitala, Pikara aldizkaria, Errespetuz; eta beste hainbat maila pertsonalean

Berdintasun ezari... #GukEzetz bideo lehiaketa

#GukEzetz deituriko jardunaldian RECacciona Berdintasun ezari... #GukEzetz bideo-lehiaketako sari-banaketa ere izan zen. Ageitosek adierazi duenez “gazteok berdintasun ikuspegitik bizi dugun egoerari buruz eztabaida sustatu nahi izan dugu, ondoren ideiak administrazioetara helarazteko. Lehen saria eta 1000€-ak, EGK-ko epaimahaiak emana, Antiguako Talde Feministaren *Gu feministak, zu zergatik ez?* bideoarentzat izan ziren, jakinarazi zutenaren

arabera “auzoko talde feministan egiten ditugun ekintza eta proiektuak finantzatzera” bideratuko dute. Bigarren saria, publikoaren boto bidez erabakia, Ahotsaldunduz proiektuarentzat izan zen. Bertan, zapalduen antzerkiaren bitartez egunerokoan ematen diren mikromatxismoez hausnartzera animatzen dute.